

“COVID 19ARI ELKARLANEAN EGIN DIOGU AURRE ETA ONDO BALORATZEN DUGU, NAHIZ ETA EH BILDUK KRISI-MAHAIA ETENDAKOAN IZAN DUEN JARRERAK BALORAZIO POSITIBO HORI LAUSOTU DUEN”

- **“Parean ditugun erronkei aurre egiteko, elkarlanak izan behar du nagusi eta horretarako EH Bilduren udal-gobernuak gure ekarpenekiko azaldu duen jarrera ez da izan egokiena”.**
- **“Gure helburua egungo eta etorkizuneko oñatiarren bizi-kalitate egokia bermatzea da; horretarako, pertsonak ardatz dituzten politikak dira beharrezkoak, lanpostuak eskainiko dituen eta ingurumenarekiko abegikorra den ekonomia jasangarria sustatzeko, adin guztietako pertsonontzat egokitutako herri-eredua indartzeko eta gure hizkuntza eta kultura balioan jartzeko”.**

Behin hauteskundeak eginda, Oñatiko EAJ udal-taldeak legealdi honen lehenengo urtearen balantzea egin du, eta prentsurrekoa deitu du gaur eguerdian. Jeltzaleek adierazi dutenez, osasun-krisiak eraginda, lehen urte honetan bi garai nabarmentzen dira: bata COVID 19aren aurrekoa eta bestea ondorengoa. Hala ere, jeltzaleen iritziz, osasun-krisia dela eta gauza batzuk aldatu badira ere, zenbait jarrerak berdin jarraitzen dute, bai aurretik eta bai ondoren.

EAJ udal-taldeak azaldu du aurreko legealdietan izan duen jarrera eraikitzailearekin jarraitu duela, udalean bere ekarpenak egiten, bai ordenantza fiskaletan, bai aurrekontuetan, bai udalean lantzeko aukera izan duen gaitetan " herri ordezkari garen heinean, oñatiarrei entzutea eta erantzutea da gure betebeharra, horretan saiatu gara beti eta horretan jarraituko dugu", azaldu du Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak. Hala, jeltzaleek ingurumena zaintzera bideratutako proposamenak eta ekonomia-jarduera bultzatzera bideratutakoak proposatu zituzten ordenantza fiskaletan. Bide beretik egin zituzten aurrekontuetarako ekarpenak ere; horrez gain, ostalaritzan eta etxez etxeko laguntzan euskararen erabilera sustatzeko ekimenenak edota gizarte politiketan eta berdintasunean ere hainbat ekarpen egin zituzten, besteak beste. “Gure helburua egungo eta etorkizuneko oñatiarren bizi-kalitate egokia bermatzea da eta, horretarako, pertsonak ardatz dituzten politikak dira beharrezkoak, lanpostuak eskainiko dituen eta ingurumenarekiko abegikorra izango den ekonomia jasangarria sustatzeko, adin guztietako pertsonontzat egokitutako herri eredua indartzeko eta gure hizkuntza eta kultura balioan jartzeko”.

Ekarpen horiek direla eta, jeltzaleek nabarmendu dituzte azken urtean landutako gaiak; hain zuen, klima-aldaketari aurre egiteko lehen sektoreak duen garrantzia eta benetako gizarte berdinzale baten beharra. “Gure agendan dauden bi gai garrantzitsuenetakoak dira, hausnarketa eta lanketa sakonak egin ditugu horien inguruan eta proposamen zehatzak lantzen jarraituko dugu bi arlo horietan; baita Oñatiren etorkizuna definitzeko oinarritzakoa den HAPOaren lanketan ere”. Legealdi honetako erronka nagusia COVID 19aren ondorioei aurre egitea izango bada ere, “herri bezala aurretik ere genituen erronkak ezin ditugu ahaztu”, diote jeltzaleek.

Jeltzaleek egindako ekarpenen aurrean udal-gobernuak izan duen jarrera ez da izan, azaldu dutenez, nahi bezain positiboa “gure ekarpenak maiz ez dira aintzat hartu eta, udal-gobernuak duen gehiengoa kontuan hartuta hori zilegia bada ere, jarrera ez da egokiena izan”, EAJ udal-taldeak azaldu duenez. Izan ere, ekarpenak ez onartzeaz harago, gutxietsi ere egin dituzte eta “egindako ekarpenak gutxiestea ez da zilegia, ez direlako soilik talde politiko batek egindako ekarpenak, herritar askok EAJren bidez egindakoak baizik”. Udal-gobernuaren jokaerari begira, beraz, EAJK ez du, oro har, elkarlanerako borondate handirik ikusi eta “gai askoren inguruan, batzordeetan ez da nahikoa informazio eman eta, eman denean, dagoeneko hartutako erabakiak jakinarazteko izan da, ekarpenak egiteko tarterik eman gabe” , azaldu du Galdosek. Horren harira, legealdiaren lehenengo urtean hartu diren erabaki gehienak alkate-dekretu bidez hartu direla azpimarratu du bozeramaile jeltzaleak. Ekarpenak egiteaz gain, beharrezkoa ikusi duten

momentuetan kritikoak izan direla ere azaldu du Galdosek; izan ere, jeltzaleen ustez “eraikitzailea izateak ez du esan nahi ados ez gauden kontuetan kontrako jarrera azaldu behar ez dugunik, baina egin ditugun kritikak beti izan dira arrazoituak eta beti saiatu gara alternatibak eskaintzen”.

2019ko aurrekontuen betetze-maila nahiko bajua izan dela ere adierazi dute jeltzaleek, aurrekontuetan sartu ziren 14 milioi eta erdi inguruko inbertsioetatik 4 milioi eta erdi inguru baino ez zirelako gauzatu. Datozen urteei begira, exekuzioetan eraginkorragoak izateko beharra azpimarratu dute.

Jeltzaleek udalaren zorpetze maila eta egoera ekonomikoa ere aipatu dituzte. Gogoratu nahi dute plan finantzario baten beharra jarri zutela mahai gainean krisiaren aurretik, eta, horixe eskatu zuten abenduko osoko bilkuran; COVID 19aren krisiaren eraginez, plan horri ere beharrezkoagoa irizten diote. “Uste dugu plan finantzario zehatza egin beharra dagoela hurrengo hiru urteei aurre egiteko eta udalak duen egoera ekonomikoa ondo kudeatzeko. Hala eskatu genuen osasun-krisiaren aurretik eta egungo egoeran behar-beharrezkoa da”, esan du Ainhoa Galdosek.

COVID 19aren krisiak eztanda egin berritan, konfinamendu bete-betean, 2019ko aurrekontuaren gerakinaren inguruan hartutako erabakiarekin desadostasuna azaldu zuen EAJk martxoko osoko bilkuran. Jeltzaleen esanetan, pandemiari aurre egiteko modua ez zen izan egokiena, “zetorkigun egoera ikusirik, konprometitu gabe zegoen gerakinaren zati handi bat zertara bideratu erabaki zuelako udal-gobernuak, bakar-bakarrik eta zetorren krisia kontuan hartu gabe”.

Hala ere, krisiari aurre egiteko mahai bat sortzea eta elkarlanerako bideari heltzea proposatu zuten jeltzaleek eta neurri horiek elkarlanean adosteko aukera izan dute azken hilabeteetan bi udal-taldeek. Kultura-alorrean osasun krisia dela eta hartu beharreko neurriak eragileekin adosteko mahaia sortzeko eskaera, ordea, ez zuen onartu EH Bilduren udal-gobernuak eta ez dute jeltzaleek lanketa horretan parte hartzeko aukerarik izan. Edozein kasutan, krisiari aurre egiteko lanketa ondo baloratzen du EAJ udal-taldeak “ezinbestekoa zen guztiok elkarrekin lan egitea, herritarrek eta momentuak merezi zuelako eta gustura gaude egin dugun lanarekin”, azaldu du Galdosek. Dena den, Galdosek aitortu du, behin neurriak onartu eta krisi-mahaia eten da, balorazio positibo hori lausotu egin duela udal-gobernuak EAJren ekarpenarekiko kaleratu duen iritzia: “astez aste gure udal-taldeak krisi-mahaian egindako lana gutxietsi zuen publikoki alkateak eta jarrera negatibo horrek zapore gazi-goza utzi digu”.

Hemendik aurrerako ibilbidean dauzkate jarrita begiak orain jeltzaleek; batetik, arduratuta daude, garai zailak datozelako baina, bestetik, giro politikoa lasaituko den esperantzaz daude. “Azken hilabeteetan hauteskunderik hauteskunde, giro politikoa asko nahastu da”, esan du Galdosek. “Konfrontazioa nagusitu da eta, bereziki, EH Bilduren jarrera asko gogortu dela iruditu zaigu”, diote jeltzaleek; eta konfrontazio-egoera horri egotzi nahi izan diote Oñatiko udal-gobernuak udal-talde jeltzalearekiko izan duen jarrera oldarkorra. “Ia 3 urte egongo gara hauteskunderik gabe eta uste dugu giroa lasaitu daitekeela; espero dugu udal-gobernua konturatuko dela EAJ udal-taldea oñatiarren alde lan egiteko dagoela eta ez etengabeko konfrontazioetan aritzeko”.

Amaitzeko, adierazpen-askatasuna eta errespetua ere izan ditu hizpide Galdosek. “Gure elkartasun osoa azaldu nahi diogu Jose Mari Agirrerri, komunikabideetan bere iritzia emategatik jasan behar izan duen egoerarengatik. Adierazpen-askatasuna eta errespetua ezinbestekoak dira gure gizartean, beti-beti. Errespetuz egiten den adierazpen orok merezi du errespetu eta, ondorioz, adierazpenok egiten dituen pertsona orok. Ez da zilegi inor seinalatzea edo erasotzea bere iritzia publiko egitegatik eta horixe jasan du Jose Marik”. Ez direla kikilduko eta EAJ osatzen duten gizon eta emakumeek beren adierazpen-askatasuna errespetuz erabiltzen jarraituko dutela esanez amaitu du Ainhoa Galdosek.

VALORAMOS POSITIVAMENTE LA COLABORACIÓN EN EL AYUNTAMIENTO PARA HACER FRENTE A LA COVID 19, AUNQUE LA ACTITUD DE EH BILDU TRAS LA SUSPENSIÓN DE LA MESA DE CRISIS HA EMPAÑADO DICHA VALORACIÓN

- **"Para hacer frente a los retos a los que nos enfrentamos, debe primar la colaboración y para ello la actitud mostrada por el gobierno municipal de EH Bildu hacia nuestras aportaciones no ha sido la más adecuada".**
- **"Nuestro objetivo es garantizar una calidad de vida adecuada de los oñatiarras en la actualidad y en el futuro, para lo que son necesarias políticas centradas en las personas, para fomentar una economía sostenible que ofrezca puestos de trabajo y sea respetuosa con el medio ambiente, para fortalecer un modelo de municipio adaptado a las personas de todas las edades y para poner en valor nuestra lengua y nuestra cultura".**

Una vez celebradas las elecciones, el grupo municipal de EAJ-PNV en Oñati ha hecho balance del primer año de esta legislatura y ha convocado para ello una rueda de prensa este mediodía. Según los jeltzales, en este primer año hay que señalar dos etapas: una anterior a la COVID 19 y otra posterior. Sin embargo, a juicio de los jeltzales, aunque algunas cosas han cambiado debido a la crisis sanitaria, algunas actitudes siguen igual, tanto antes como después.

El grupo municipal EAJ-PNV explica que ha continuado con su actitud constructiva de las pasadas legislaturas, haciendo sus aportaciones en el ayuntamiento, tanto en las ordenanzas fiscales como en los presupuestos y en los temas que ha tenido oportunidad de trabajar en el ayuntamiento "como representantes de la ciudadanía, nuestra obligación es escuchar y responder a las y los oñatiarras, eso es lo que hemos tratado y en ello seguiremos", explica la portavoz jeltzale Ainhoa Galdos. Así, los jeltzales plantearon en las ordenanzas fiscales propuestas dirigidas a la preservación del medio ambiente y al impulso de la actividad económica. En el mismo sentido hicieron aportaciones a los presupuestos; además, de iniciativas para fomentar el uso del euskera en la hostelería y la ayuda a domicilio, así como diversas aportaciones en políticas sociales e igualdad, entre otras. "Nuestro objetivo es garantizar una calidad de vida adecuada de las y los oñatiarras actuales y futuros y, para ello, son necesarias políticas centradas en las personas, para fomentar una economía sostenible que ofrezca puestos de trabajo y sea respetuosa con el medio ambiente, para fortalecer un modelo de municipio adaptado a las personas de todas las edades y para poner en valor nuestra lengua y nuestra cultura".

Con sus aportaciones, los jeltzales han querido resaltar la importancia del sector primario para combatir el cambio climático y la necesidad de una verdadera sociedad igualitaria. "Son dos de los temas más importantes que están en nuestra agenda, hemos reflexionado en profundidad sobre los mismos y seguiremos trabajando propuestas concretas en estas dos áreas; así como en la elaboración del PGOU que es básico para definir el futuro de Oñati". Aunque el principal reto de esta legislatura será hacer frente a las consecuencias de la COVID 19, "no podemos olvidar los retos que ya teníamos anteriormente como municipio", afirman los jeltzales.

La actitud del gobierno municipal ante las aportaciones realizadas por los jeltzales no ha sido tan positiva como deseaban, según explican, "nuestras aportaciones, a menudo, no han sido tenidas en y, aunque esto es legítimo dada la mayoría con la que cuenta el gobierno municipal, la actitud no ha sido la más adecuada", según explica el grupo municipal jeltzale. Y es que, más allá de no aceptar las aportaciones, en ocasiones las han menospreciado y "menospreciar las aportaciones realizadas no es legítimo, porque no son sólo aportaciones realizadas por un grupo político, sino por muchos ciudadanos a través de EAJ-PNV". De cara a la actuación del gobierno municipal, por tanto, EAJ-PNV no ha visto, en general, mucha voluntad de colaboración, "en muchas cuestiones no se ha dado suficiente información en las comisiones y, cuando se ha dado, ha sido para comunicar las decisiones ya adoptadas, sin dar margen para aportaciones", ha explicado Galdos. En este sentido, el portavoz jeltzale ha subrayado que la mayoría de las decisiones que se han tomado en el primer año de legislatura se han tomado por decreto de alcaldía. Además de hacer aportaciones, Galdos también ha explicado que han sido críticos en los momentos en los que lo han visto necesario, ya que, a juicio

de los jeltzales, "ser constructivo no significa no tener que posicionarnos en contra en cuestiones en las que no estamos de acuerdo, pero las críticas que hemos hecho siempre han sido razonadas y siempre hemos intentado ofrecer alternativas".

Los jeltzales también han señalado que el grado de cumplimiento de los presupuestos de 2019 ha sido bastante bajo, ya que de los cerca de 14 millones y medio de inversiones que se incluyeron en los presupuestos sólo se ejecutaron unos 4 millones y medio. De cara a los próximos años, insisten en la necesidad de ser más eficaces en las ejecuciones.

Los jeltzales también mencionan el nivel de endeudamiento municipal y la situación económica. Quieren recordar que pusieron encima de la mesa la necesidad de un plan financiero antes de la crisis, y así lo pidieron en el pleno de diciembre; debido a la crisis del COVID 19, lo consideran aún más necesario. "Creemos que hay que hacer un plan financiero detallado para afrontar los próximos tres años y gestionar bien la situación económica que tiene el ayuntamiento. Así lo pedimos antes de la crisis sanitaria y en la situación actual es absolutamente imprescindible ", ha dicho Ainhoa Galdos.

Tras el estallido de la crisis de la COVID 19, en pleno confinamiento, EAJ-PNV mostró en el pleno de marzo su desacuerdo con la decisión adoptada sobre el remanente del presupuesto de 2019. Los jeltzales sostienen que la forma de afrontar la pandemia no fue la más adecuada porque "dada la situación que nos venía, el gobierno municipal decidió a qué destinar buena parte del remanente que no estaba comprometido, unilateralmente y sin tener en cuenta la crisis que se avecinaba".

No obstante, en los últimos meses los dos grupos municipales han tenido la oportunidad de acordar conjuntamente la creación de una mesa de trabajo para hacer frente a la crisis. Sin embargo, el gobierno municipal de EH Bildu no aceptó la petición de crear una mesa para consensuar con los agentes culturales las medidas a adoptar en materia de cultura. En cualquier caso, el grupo municipal EAJ-PNV valora adecuadamente la colaboración para hacer frente a la crisis "era necesario que todos trabajáramos juntos, porque la ciudadanía y el momento lo merecía y estamos satisfechos con el trabajo que hemos realizado", ha explicado Galdos. No obstante, Galdos reconoce que, una vez aprobadas las medidas y suspendida la mesa de crisis, esta valoración positiva se ha visto empañada por la opinión que el gobierno municipal ha manifestado respecto a la aportación EAJ-PNV: "La alcaldesa minusvaloró públicamente el trabajo de nuestro grupo municipal en la mesa de crisis y esa actitud negativa nos ha dejado un sabor agri dulce".

Los jeltzales tienen ahora los ojos puestos en el futuro; por un lado, están preocupados porque vienen tiempos difíciles pero, por otro, confían en que el clima político se tranquilice. "En los últimos meses, debido a las múltiples contiendas electorales, el clima político se ha crispado mucho", ha dicho Galdos. "Ha imperado la confrontación y, especialmente, nos ha parecido que la postura de EH Bildu hacia nosotros se ha endurecido mucho", afirman los jeltzales, que han querido achacar a esta situación de confrontación la actitud agresiva del gobierno municipal de Oñati hacia el grupo municipal jeltzale. "Vamos a estar casi 3 años sin elecciones y creemos que se puede relajar el ambiente; esperamos que el gobierno municipal se dé cuenta de que el grupo municipal EAJ-PNV está para trabajar por y para las y los oñatiarras y no para estar en una permanente confrontación".

Para finalizar, Galdos se ha referido también a la libertad de expresión y el respeto. "Queremos mostrar toda nuestra solidaridad a José Mari Agirre por la situación que ha tenido que soportar por dar su opinión en los medios de comunicación. La libertad de expresión y el respeto son imprescindibles en nuestra sociedad. Toda manifestación respetuosa y, en consecuencia, toda persona que la manifieste merece respeto. No es lícito señalar o atacar a nadie por hacer pública su opinión y eso es lo que ha sufrido José Mari". Ainhoa Galdos ha concluido diciendo que no se van a amilanar y que los hombres y mujeres que conforman EAJ-PNV seguirán ejerciendo su libertad de expresión con respeto.